

Hutsune baterako ideien ereitea, Madrilgo La Cebada plaza



El Campo de Cebada auzo-elkartea eta Zuloark °

Gako-hitzak:
Herritarren prozesu parte-hartzailea,
espazio publikoa,
Madrilgo La Cebada plaza,
El Campo de Cebada auzo-elkartea

Madrilgo La Latina auzoko biztanleen garrasien abotsa da El campo de Cebada izenaz ezaguturiko herritarren proiektua. Auzokideek hitza hartu eta elkarrekin la Cebada plazaren aktibazioa lortzeko lan-ekimena gauzatzeko determinazioa hartu dute 2010. urteko irailetik hona.

Gutxinaka La Cebada plaza fisikoki eta sozialki ere erakitzen ari da. Orubea erabilgarri izateko lanak egiten ari dira, hala nola komunikazio fisikoa izateko oinarriak finkatu, herritarren parte hartzea eta informazio-taulak ezinbestekoak baitira. Horrela, ekipamendu txikiak proposatzen hasiak dira: kirola egiteko gailuak, biltegiak, itzalgunekak, altzariak... Izan ere, hiria egiteko prozesu parte-hartzaileetan, eskala txikiko elementuek balio gainjarri ikaragarria dute. Plazaren bukaerako emaitza fisikoa adosten den bitartean, plazaren giza kapitala sendotzen ari da, ekitaldien bidez edota kanal digitalen bidez. Eraikitze-prozesuaren zimentuak jarriak dira jada.

La Cebada Madril erdigunean kokaturiko espazio-hutsune bat da. Hiriko haustura fisikoa eta soziala osatzen du gune horrek, enparantza garaikide baten adierazle zuzena. Auzo turistikoa dugu, Madrilgo paisaia eraiki eta historikoaren lekuko, eta bitzita handikoa izanik ere, espazio publiko eta kirol-ekipamenduen gabezia du. 2003. urtean udalari La Cebada plaza eta La Cebada merkatuaren birmoldatze-plana sustatzea otu zitzaion; plangintzak, arestian igerileku bat zen lekuan udal-kiroldegi

berri bat proposatzen zuten. Ideia-lehiaketa antolatu eta ebatzi ondoren, igerileku zaharra eraitsi zen. 2003. urteaz geroztik ez da ezer gauzatu eta plaza espazioa huts bat da, erabilerarik gabekoa, administrazioak modu baldarrean egindako kudeaketa dela-eta.

2010eko irailean, Exyzt kolektiboak Madrilgo Gau Zuria ekitaldirako Isla Ciudad proposamena gauzatu zuten La Cebada hutsunean. Proiektua behin-behineko espazio publiko aktibo bat sortzean zetzan, desmuntagarriak ziren egiturak eta materialak erabiliz. Proiektu horren desegitea gertatu zeneko epean, iraila bukaeran, hamaika bilera suertatu ziren auzokideen artean lursailaren inguruan solastatzeko. Behin orubea berri ere stand-by egoerara itzulia zenean, modu espontaneoan auzotarren arteko bilerak areagotuz joan ziren eta profil desberdineko herritarren parte-hartze zabala jasotzen joan ziren. Horrekin batera, lehen kudeaketa-, komunikazio- eta hedatze-lanak burutu ziren. Gertakizun horien emaitza El Campo de Cebada auzolanaren jaiotza izan zen.

El Campo de Cebadak (ECDC aurrerantzean) kalitatezko espazio publiko bat aldarrikatzen du, demokratikoa eta parte-hartzailea. ECDC auzotarrek bultzatutako orube baten aktibaziorako eredu berriak aurkitzeko lan-ekimen proiektua da, ideiak eriteko landa izateko bokazioarekin. Auzotar guztien proposamenak bildu nahi ditu proiektuak eta espaziora eramanez berau hiriaren zati aktibo bat izateko berreskuratuz. Azken hel-



burua, orubea herritarrei irekitzea da, behin-behineko egoera hau mantentzen den bitartean guxtienez.

Lan-eredu hibridoa

Helburuak behin zehaztuak, berauek praktikara eramateko espazio publikoa kudeatzeko eredu berritzaileak behar direla argi dago. Jabego pribatuaren ereduaren ardura bakar batzuek hartzen dute eta espazioaren jabeen interesek definitzen dituzte helburuak. Espazio publikoan, aldiz, normalean espazio neutroa izaten da, non ezer ez den gertatzen eta inorena ez den. ECDC espazioa pentsatzeko eta kudeatzeko eredu hibrido bat ari da frogatzen.

Espazio publikoaren ohiko kudeaketak ez du emaitza aberasgarririk ekartzen, hori frogatua dugu denok. Askotan publiko izakerak anonimotasunaren ezerezaren sinonimoa izaten da. Entzun izan bada ere publikotasunaren egungo eduki-gabezia herritarren errua dela, Internet adibide ezin hobea da egiaztatzeko nola espazioak aktibitatea sortzeko eta elkarbanatzeko aukera emateko diseinatuak baldin badira, emaitza oparoak jasotzen direla. Parte-hartzaile izateak ez du esan nahi arau zehatzik egon behar ez denik, baizik eta herritarrek derrigorrez rol aktiboa jaso behar izatea. Horrek paradigma-aldaketa handia eskatzen du.

ECDC proiektuan hasieratik, administrazioaren presentzia bultzatu izan da: “Herritarren parte-hartze” eta “Ogasun”

sailekin bilera eta kontaktu zuzena izan da, orubearen erantzukizuna beraiena baita. Udalak orubearen kudeaketa auzotarrei esleitzea baztertu da. Udalari garbiketa, elektrizitatea, ura eta Internet zerbitzuak ematea eta proiektua jarrai dezan eskatu zaio eta auzotarrek parte hartze-aktiboa eta espazioaren dinamizazioa bermatzen duen sistema bat sortu beharko dute trukean. Auzokideak, alde batetik, espazioaren beharren gaineko erabaki-guneetan parte hartuko du, eta bestetik, proposatzen diren proiektuak praktikara eramateko prozesuan ere hitza hartuko du. Negoziaketa-prozesu jarraitu bat da eredu hibrido hau.

Espazio elkarbanatua

ECDC plurala izateko, ahots guztien ordezkapenaren emaitza lortu behar da, eta beraz, batzarren bidez antolatutako eztabaida-foroetatik plazarako ideiak osatuko dira, iritzi kontrajarrietatik abiatuz derrigorrez. Bestalde, plaza espazio partekatua modura uler dadin bilatu da: ardura publikoko (denona) espazioa, bere garapena eta kudeaketa auzokideei ematen zaie eta hauen parte-hartzearen beharra du. Komunikazio zuzena eratzen da espazioaren gaineko erabakiak hartzen dituzten artean eta erabiltzaile direnen artean.

Parte-hartze prozesua eskala desberdinetan eraiki eta diseinatu da eta parte-hartze modu aktiboak eta pasiboak onartzen dira. Horrela, zenbait fase banatu daitezke: hasieran batzar irekien bitartez ardurak banatu ziren eta espazioaren



lehen hobetze-lanetarako neurriak zehaztu ziren. Batzarren egunak, espazioaren irekiera-orduak etab. finkatu ziren ere. Bigarren fase batean, behin espazioak plaza izaera jasotakoan, ordutegia irekiko da baina gauez itxi egingo da. Orduan plazari lotutako proiektuei hasiera emango zaie eta parte hartzeko estrategiak diseinatuko dira. Proiektuak une honetan bide batzuk jarri ditu abian:

-Auzoko elkarte edo talde guztiak harremanetan jarri, guztien parte-hartzea bermatzeko politika aurrera eramanez: AMPAS, AVECLA, La Corrala, merkatuko saltzaileak.

- Udalaren sailekin harremanak landu. Behar-beharrezkoa da orubearen jabe ofizialak plazan gertatzen ari denaz informatuta egotea eta proiektuari atxikitzea, hala nola beharrezko lanak aurrera eramateko aurrekontu bat bermatzea eta mantentze-gastuak bere egitea.

- Auzo eta auzokideen arteko komunikazioa landu. Edozein auzotar proiektuaren edozein garaitan gehitu daiteke, nahi duen parte-hartze maila eta intentsitatearekin. Ezinbestekoa da parte hartzeko diseinu ireki bat egitea egoera desberdinak jasotzeko aukera dituen. Komunikazio-bideak ireki, digitalak eta fisikoak.

- ECDCren barne-antolamendua zehaztu eta espazioaren eraikitze- eta garbitze-lanak gauzatu. Astero batzar bat antolatzen da plazan inguruko gertakizunen berri emateko eta proiektu eta aktibitate-aukerak eztabaidatzen dira. Edozeinek parte hartu dezake.

- La Latina merkatua eta etorkizuneko kiroldegiaren gaineko gogoeta. Martxan den eraikuntza sozialak administrazioari proposamen zehatz bat aurkezteko aukera izatea inportantea da. Azpimarratu behar da hasieratik plazan egiten diren lan guztiek izaera alderantzikagarria izan behar dutela, eta ECDCn egindako prototipoak hiriko beste espazio baterako erabilgarri izan daitezkeela. Propietate elkarbanatuaren kontzientziaz jabetzea hitz batean.

Arkitektoa, giza baliabideen eraikitzaile

Zuloark kolektiboa izan da Madrilgo ECDC proiektuari laguntza eta babes eman diona. Teknikaria, hiri eta arkitekturan aditua, beste auzokide bat besterik ez da, arkitekturan aukerak herritarrei zabaltzeko eta hauetatik aberasteko eginkizuna duena. Beste profil bateko auzokideek gauza bera egiten dute: bai jakinduria elkarbanatu. Arkitektoaren funtzioa, funtsean, adostasuna abalbidetzen duten kudeaketa-metodoak diseinatzean datza. Bestalde, orain arte arkitekturan eta hirigintzan parte hartzeko aukerarik izan ez dutenei ahotsa emateko bideak ireki behar ditu arkitektoak. Hiria eraikitzeko prozesu parte-hartzailean, mikroeskala nagusitzen da, aulki baten diseinuak berebiziko garrantzia hartu dezakeelarik.

www.elcampodecebada.org

° El Campo de Cebada auzo elkarte bat da: Zuloark arkitektura kolektiboarekin batera elkarlanean da egiteko honetan.

